Ele-meleka

IKERKETA KUALITATIBOA

Emaitzak eta Ondorioak

Bigarren Hezkuntzako nerabeen hizkuntza-sozializazioan laguntzeko proiektua

Egileak:
Ttakun Kultur Elkartea, Oriarte BHI, Ebete, Asier Huegun Burgos eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara-zerbitzua.

Testuaren moldatzailea:
Lasarte-Oriako Udaleko Euskara-zerbitzua

Argitaratzailea:
Lasarte-Oriako Udala

Diseinua eta maketazioa:
Bikain diseinu grafikoa

Baimena:
Creative Commons BY-SA

Lasarte-Orian, 2025eko martxoan

Ttakun Kultur Elkartea

Oriarte Institutua

ebete
Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eta tresnak

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Aurkibidea

1. Kokapena 5

2. Metodologia 11

3. Emaitzak 15

3.1. Ikerketa-galderak 16

3.2. Emaitzak 17

4. Programa bakoitzarekin lotutako emaitzak 23

4.1. *Ele-meleka* sentsibilizazio saioak 25

4.2. *Kidetzeak* 28

4.3. *Gazte eragileen batzordeak* / Kultur dinamizatzaileak 31

4.4. Nerabeen Ahobizi dinamikak 35

4.5. *Kuadrillategi* 37

4.6. *Faktoria* 40

4.7. Kaleko erabileraren neurketak 41

5. Zeharkako emaitzak 43

6. Ondorioak 49

7. Erreferentzia bibliografikoak 57

1

Kokapena

ONDOKO ORRI HAUETAN *ELE-MELEKA* PROIEKTUARI BURUZ EGIN DEN IKERKETA AURKEZTEN DA, TTAKUN KULTUR ELKARTEKO JON PELLO ARTETXEK ETA IKER ARTETXEK, EBETE HIZKUNTZA-ZERBITZUETAKO IÑAKI EIZMENDIK ETA EHUKO HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEKO ASIER HUEGUNEK EGINDAKOA.



Lasarte-Orian nerabeen hizkuntza-ohituretan eta jarreretan eragiteko proiektuek elkarlana izan dute oinarri hainbat urtez. Lasarte-Oriako udala, herriko ikastetxeak eta Ttakun Kultur Elkartea norabide berean aritu dira, elkar lagunduz eta osatuz. Horren ondorioz sortu dira hainbat ekimen eta jarduera, eta horietako asko eredu izan dira beste herri edo eskualde batzuetan eta bertara eraman izan dituzte. Besteak beste, *Kuadrillategi*, *Motibazio Saioak* eta *Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean*.

Elkarlanean aritzeak hainbat ekimen garatzeko aukera eman duen moduan, behar berriak identifikatzeko aukera ere eman du eta horietara egokitzeko ahalegina egin izan da. Hortik sortu zen *Ele-meleka* proiektua: institutuko maila guztiak hartzen dituen proiektua, herrian ikasten duten nerabe guztiengana iristen dena, eta era planifikatu batean hizkuntza-trebetasunen eta euskararekiko jarreren inguruan lan egitea lortzen duena.

2018-2019 ikasturtean *Ele-meleka* proiektua birdefinitu zen. Ikuspegia hizkuntza-sozializazioan jarri zen. Hau da: Bigarren Hezkuntzako nerabeei hizkuntza-sozializazioan laguntzeko proiektua da (Lasarte-Oriako Udaleko Euskara-zerbitzua, Ttakun Kultur Elkartea, Oriarte BHI, Ebete hizkuntza-zerbitzuak eta Huegun, 2022).

Proiektu horri begira hainbat oinarri landu ziren eta hainbat programa txertatu ziren bere barruan. Horietako batzuk lehendik ere egiten zirenak eta beste batzuk berriak, baina bakoitza helburu eta irizpide batzuekin.

Ele-meleka proiektuaren helburua nerabeei hizkuntza-sozializazioan laguntzea da: "Gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua" (Kasares, P 2014). Prozesu bat da, eta hizkuntzak ikastea eta ezagutza soziokulturalaz jabetzea lotuta daude. Hizkuntzaren bidez sozializatzen gara eta hizkuntza erabiltzeko sozializatuak gara.

Gaur egun haur eta nerabeak testuinguru eleaniztun batean bizi dira eta gutxienez hiru hizkuntza ikasten ari dira. Hizkuntza-sozializazioan laguntzeko proiektuko programek haien artean lotura izan dezaten nahi da, osotasun batetik aztertu ahal izatea. Hori dela eta:

- Euskararekin duten harremana oso kontua hartzen da: ez da berdina etxetik euskara jasotzen duten, eta etxetik kanpo ere euskararekin harreman handia dutenekin hizkuntza-sozializazioaren norabidea lan egitea, edota euskara soilik ikastetxearekin lotzen dutenekin (Hernandez, 2020).

- Koherentzia eta malgutasuna bilatu da: helburua eta norabide argia du programa bakoitzak, baina beharrezkoa ikusten denean malgutasunez jokatzea ere egokia da.

- Intentsiboak eta estentsiboak dira: programa batzuk guztiei zuzendutakoak dira eta beste batzuk, aldiz, ikasle jakin batzuei.

- DBH1k garrantzia berezia du: mudantzak gertatzeko une bat da eta, mudantza horiek gaztelaniaren aldekoak izan daitezke testuingurua eta hizkuntza-arauengatik (Pujolar eta Gonzàlez, 2013).

- DBH3n eta DBH4n izaera ezberdina eman nahi izan zaio programari: sei urteko ikuspegia duen proiektua da (DBHetik Batxilergoko bigarren mailara). Edukiak errepikakorrak ez izateko DBH3 eta 4n ezaugarri batzuk moldatu egin dira sentsibilizazio saioetan.

- Batxilergoan ahalduntzea eta errespetuzko jokabideak lantzea bilatzen da: euskara gertu dutenak protagonista eta adinez txikiagoak direnentzat erreferente izatea nahi da, eta euskara nahiko urrun dutenekin belarriprest jarrera izatea eta euskararen erabilera ez oztopatzea.

Hiru urteko ibilbidearen ondoren, balorazio kualitatibo sakon bat egiteko garaia zela ikusi zen. Oinarri batzuen arabera eta helburu jakin batzuekin garatutako proiektua izanik, aztertu nahi izan da benetan helburu horiei begira programak egokiak eta eraginkorrak diren.

Datu kuantitatiboei begiratu ezkero, ez dago zalantzarik: programaren barruan daude sentsibilizazio saioak (100 baino gehiago urtero), *gazte eragileen batzordeak*, *Kuadrilla-tegi* eta *Faktoria*, *kidetzeak*... Bolumen handiko egitasmoa da.

Baina jarritako oinarriek ba al dute zentzurik? Eta programek laguntzen al dute helburu horietara iristen? Hori aztertu nahi da eta hau ere ondo oinarritutako modu batean egin nahi da. Honakoa ikusi nahi izan da:

- *Ele-meleka* proiektuak dituen oinarriak programen bidez egoki lantzen ote diren ikustea.

- Programa horiei jarritako helburuak lortzen ote diren aztertzea.

- Oinarriak osatzeko edo moldatzeko eta programak gehitzeko edo moldatzeko ideia berriak ikustea.

Ele-meleka programaren barruan honakoa egiten da:

- **Sentsibilizazio saioak**
  Klase orduetan egingo dira eta Ttakuneko dinamizatzaileek gidatuko dituzte. Bataz beste 4 saio urtean. 100 saiotik gora urtero.
  – DBH1ean eta DBH2an hizkuntza-ohiturak izango dira ardatz nagusia. Batxilergoan ere hori izango da, baina noski, hausnarketa garatuagoa eskainiz. DBH3an eta 4an beste izaera bat eman nahi zaio gazteentzat oso errepikakorra izan ez dadin, eta kultur transmisioa hartuko da oinarri moduan.
  – *Ele-meleka*ko saioetan gazteen aktibazioa ere bilatuko da, eta gazte eragileen batzordeetara gonbidapena egingo zaie.

- ***Gazte eragileen batzordeak***
  Eskola orduz kanpo astean behin (urritik ekainera) elkartzen diren batzordeak dira.

Adinka banatuta, bi batzorde: DBH1-2 eta DBH3-4. Dinamizatzaileek gidatutako saioak dira. Gazteen Euskara Batzordeak hiru helburu izango ditu:

– Partaide diren kideen artean euskararen erabilera indartzea eta finkatzea.
– Inguruko gazteengan eragitea.
– Txikiagoentzat erreferente izatea.

Hau da: batzordean parte hartuko duten kideak euskararekin sentsibilizatuta daudenak izango dira, baina horrek ez du esan nahi euskararen erabilera finkatua dagoenik beraien artean. Beraz, hori izango da ardatzetako bat. Horretaz gain, beraiek eragile izatea nahi da eta erreferente izatea ingurukoengan eta txikiagoengan.

- **Ahobizi dinamikak**
  Gazte batzordeetatik gidatutako ekimenak. Euskaraldiaren ideia jarraituz, institutu barneko dinamikak dira. Hizkuntza erabileraren arloko helburu xumeagoak eta lorgarriak izango direnak ezarri ohi dira, gazteei presioaren zama ez leporatzeko intentzionalitate osoz. Ahobizi eta Belarriprest figurak egokitu egiten dira institutuko errealitatera. Epe luzera dituen ondorioak ere ikertu izan dira emaitza positiboekin. Modu batera edo bestera 200 ikaslek parte hartu ohi dute.

- ***Kuadrillategi* eta *Faktoria***
  Ttakun Kultur Elkarteak kudeatzen dituen DBH eta Batxilerreko ikasleei zuzendutako aisia egitasmoak dira. Ikasturte osokoak eta 30 ostiral eta zenbait asteburutan egiten direnak. 100 gaztetik gora biltzen dira adinka banatutako taldeetan. Ikasturte amaierako udaleku batekin amaitzen dira. Udaleku hauek “Barnetegi” funtzioa betetzeko asmoz egiten dira batik bat.

- ***Kidetzeak***
  Ikastetxeko ikasle helduenak gazteenen erreferente eta bidelagun izatea nahi da: haiekin hizkuntza-ohiturei buruz hitz egitea, eta euskararen erabilera indartzeko proposamen zehatzak egitea eta jarraipena egitea. Ikasturte osoko programa bat izango da. Eskola orduetan hasi bai, baina garapena eskola orduz kanpo izango duena. Hemen ere, dinamizatzaileek egingo dituzte bideratze lanak.

  Kide nagusiak eta kide gazteak egongo dira. Guztira 50-60 lagun artean aritzen dira.

  Kide nagusiak: Batxilergoko (eta beharrezko ikusten bada DBH4ko) ikasleak. Irakasleek hautatuko dituzte eta gonbita egingo diete. Beraien zeregina izango da kide gazteekin biltzea, gaia mahai gainean jartzea, proposamenak egitea, urratsak adostea eta jarraipena egitea.

  Kide gazteak: DBH1 eta DBH2ko ikasleak izango dira. Borondatezkoa izango da, baina hainbat ikasleren kasuan preskriptiboa ere bai: irakasleek ikasle batzuei (eta beharrezkoa bada beren gurasoei) ekimenean parte hartzearen garrantzia azalduko diete.

- **Kaleko erabileraren neurketak**
  Lasarte-Oriako Udalaren enkarguz urtean behin 10 gaztek udalerriko hizkuntzen kaleko erabileraren neurketak egiten dituzte. Gazteekin aurre lanketa egiten da eta emaitzak jaso ostean, Udalerriko emaitzen azterketa eta konparazio saioa egiten da, beste urteetako eta inguruko udalerrietako emaitzak ere aztertuz.

Sentsibilizazio saioak	DBHn eta Batxilergoan egiten dira. Ikas-maila eta talde bakoitzean bataz beste 4 saio urtean. 100 saiotik gora urtero.
Gazte eragileen batzordeak	Bi batzorde: DBHko lehen zikloa eta DBHKo bigarren zikloa. Bakoitzean bataz beste 15 partaide. Ikasturte osoan zehar. Dinamizatua.
Ahobizi dinamikak	Urtero. Parte hartze handia.
Kuadrillategi* eta *Faktoria	Aisialdiko programak. 100 gazte baino gehiago. Ikasturte osoan zehar.
Kidetzeak	Batxilergokoak eta DBH1ekoak. 50 kide inguru. 4 saio urtean eta jarraipena.
Kale erabilera neurketak	Eskola-orduz kanpoko bertso-eskola programa da.



2

Metodologia

Helburuak

Ikerketa lan honetan hauek izan dira helburuak:

- *Ele-meleka* egitasmoak nerabeen hizkuntza-ahalduntzean duen eragina aztertzea.

Horren barruan ondoko helburu zehatzak daude:

- Egitasmoaren indarguneak identifikatzea.
- Egitasmoaren ahulguneak identifikatzea.
- *Ele-meleka*ko partaideek egitasmoarekiko duten hautematea ezagutzea.

Diseinua

Ikerketa honen diseinua paradigma interpretatiboaren barruan kokatzen da. Ikuspegi honen arabera, gertuko errealitatearen interpretazioak, une historiko eta kultural baten araberako ondorio dira (Blaxter et al., 2010). Ikuspegi kualitatiboaren arabera, ez dago errealitate sozial bakar bat, errealitate hori pertsona bakoitza aurkitzen den egoera bakoitzaren arabera eraikitzen baita, baita pertsonen arteko elkarreraginaren bitartez. Ikerketa hau kualitatiboa da, eta errealitate soziala eta gizabanakoaren errealitatea ulertzea eta interpretatzea du xede. Hau da, *Ele-meleka* egitasmoko protagonista eta parte hartzaileen hautemateetan oinarritzen da. Horretarako, ikerketaren partaide izan direnen hausnarketetatik, sentimenduetatik, sinesmenetatik eta baloreetatik abiatu dugu analisia.



Partaideak

Ikerketa egiteko partaide hauek izan ditugu kontuan: Ele-melekako hartzaileak, alegia, nerabeak; eta dinamizatzaileak, alde batetik; eta beste aldetik, irakasleak. Horiekin osatu ditugu eztabaida-taldeak, hamahiru guztira, eta 51 pertsonak hartu dute parte.

TALDE EZTABAIDAK				
1	*Ele-meleka* sentsibilizazio saioak	*Ele-meleka*n parte hartu zutenak (2019an eta 2020an parte hartu zutenak)	Euskara nahiko gertu	5 kide
2			Euskara nahiko urrun	4 kide
3		*Ele-meleka*n dabiltzanak	DBH1-2	3 kide
4			DBH3-4	3 kide
5			Batxi1-2	3 kide
6	Gazte batzordeak	Parte hartu zutenak	Batxilergoan daudenak + Unibertsitate garaikoak	4 kide
7		Parte hartzen ari direnak	DBH1-2	3 kide
8			DBH3-4	2 kide
9	*Kidetzeak*	Erreferenteak	Batxilergoa	2 kide
10		Parte hartzen dutenak	DBH1	2 kide
11	*Kuadrillategi/ Faktoria*	Parte hartu izan dutenak (2023 eta 2024 urteetan parte hartu zutenak)		4 kide
9*		Parte hartzen ari direnak *Faktoria*		4 kide
3*		Parte hartzen ari direnak *Kuadrillategi*		2 kide
12	Dinamizatzaileak	Aritu izan direnak eta dabiltzanak		3 kide
13	Irakasleak	Aritu izan direnak eta dabiltzanak		6 kide

Datuak jasotzeko tresnak

Talde eztabaidak, funtsean, datuak sortzeko elkarrizketa kolektiboak dira (Acocella 2012). Teknika bereziki baliagarria da pertsonen ezagutzak, hautemateak, bizipenak nahiz esperientziak eta partaideek hauei buruz egiten dituzten irakurketak aztertzeko.

Taldean jarduteak eztabaida errazten du. Izan ere, partaideen arteko kohesio-sentsazioa areagotuz, informazioa partekatzeko seguru sentitu daitezen bilatzen da. Haien artean gertatzen diren hitzezko elkarrekintzen bidez, norbanakoaren ezagutza eta hautemateak eraikitzeko eremu bihurtzen dira talde-eztabaidarako espazioak.

Datuen analisia

Jasotako informazioaren analisiak prozesu hau jarraitu du: a) Informazioaren murrizketa, b) Informazioaren antolaketa eta aurkezpena eta c) Emaitzen analisia eta interpretazioa (Cabrera Rodríguez 2000).

3

Emaitzak

3.1. Ikerketa-galderak

Hauek izan dira ikerketa bideratu duten galdera eragileak:

3.2. Emaitzak

Proiektuaren bidez laguntzen al zaie nerabeei hizkuntza-sozializazioan?

Eragina mugatua den arren, programa beharrezkoa da, planteamendua egokia da eta hizkuntza-sozializazioarekin lotutako helburuak lantzen dira.

- **Beharrezkoa da horrelako programa euskararekiko lotura afektiboak aktibatzeko. Kutsu akademikorik ez duenarekin lotzeko eta esperimentatzeko.**
  Saioak eskola barruan egiten dira, baina edukiak, metodologia eta dinamizatzailearen ezaugarriek kutsu akademikotik urruntzeko aukera ematen dute. Metodologia aktiboekin eta kulturarekin lotutako saioak dira. Diseinua ontzat ematen dute partaideek, bai dinamizatzaile zein irakasleek, baita ikasleek ere.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Herri erdaldun bat euskaratzeko intentzioa, euskara transmititzeko eta euskal kultura transmititzeko saiakera behintzat." "Beharrezkoa, Lasarte bezalako herri erdaldun batean, eskolan bertan horrelako programa bat edukitzea, euskarako asignatura izan gabe... euskararekin ondo pasatzea".*

  - *"Beraientzat bada bide bat, nahiz eta etxe edo giro euskaldun batetik etorri, gero kanpoan ez daukate ezer. Gu saiatzen gara baliabideak eskaintzen. Kulturalki behintzat zeozer desberdina".*

  - *"Badaude egitasmo batzuk herrian, guk ezagutarazten dizkiegunak. Batzuk ez dakite zer den eta gero gerturatu egiten dira. Ezagutu nahi badituzte behintzat, guk bide hori errazten diegu".*

  - *"Euskara urrun dutenentzako nik ustet badela aukera adibidez Euskaraldia zer den jakiteko. Bestela askok, entzun agian bai Euskarako irakasleari entzunda baina... ahobizi dinamikak ere balio die gutxienez parte hartzeko", "eta gero kulturari dagokionez, aukera dakate euskal musika ezagutzeko, sare sozialetan ze euskaldun dagoen ikusteko nahiz eta erdaldunak izan hemengo ezagunenak".*

  - *"Programa ez da zalantzan jartzen. Arazo soziolinguistiko potente bat da". "Hori da, arazoa askoz ere larriagoa da. Programa bera, ondo dago diseinatuta".* (Irakasleak)

- **Euskara gertu dutenei ahalduntzeko baliabideak eskaintzen dizkie *Ele-meleka*k.**
  Lantzen diren edukien bidez euskararen egoera soziolinguistikoaz ohartzeko bidea ematen zaie nerabeei, eta inguruan gertatzen dena ulertzeak kontzientzia soiolinguistikoa garatzen ere laguntzen die euskara gertu dutenei.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Horrelako tokietatik pasatzeak pizten dizu kontzientzia eta joe, heldutzen goazen heinean".* (Gazte batzordea)

  - *"Niri adibidez pasatzen zait, erdaraz hitz egin ohi duen jendeak niri euskaraz egiten didala. Nahiz eta beraiek erdaraz egin, ni saiatzen nintzen gogor egiten eta euskaraz egiten eta gaur egun oraindik ere pasatzen zait".* (Euskara gertu)

- **Hizkuntza-araua gaztelaniaz egitea da eta indar handia du.**
  Elkarrekin euskaraz egiten duten nerabeak gaztelaniaz egiten dutenekin elkartzean, gaztelania nagusitzen da.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Baina egia da gaztelaniaz erantzuten badidate, nik ere gaztelaniara egiten dudala salto bigarren aldiz saiatu gabe", "Bai, nik ere berdin", "Ez da lotsagatik, baina automatiko ateratzen zait".* (*Kuadrillategi-Faktoria*)

  - *"Baina oro har talde handietan jendeak erderaz jarraitzen du. Bakoitzak bere lagunak ditu eta nik nireekin euskaraz egin dut beti baina besteek, ba ez. Eta orokorrean denek erderaz hitz egiten dute".* (Gazte batzordea)

  - *"Beraien artean euskaraz aritzen ziren baina gurekin hitz egiterakoan, gaztelerara pasatzen ziren. Hori ikusten da".* (Euskara nahiko urrun)

  - *"Txikitan lagunekin euskaraz egiten nuen. Orain, klaseetan irakasleekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Normalean ez dut erdaraz egiten irakasleekin. Baina, egia da lagunekin erdaraz egiten dugula ia dena".* (Euskara nahiko urrun)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Gure artean ba batzuekin euskaraz eta besteekin erderaz. Batzuek ez dutelako euskararekin ezer jakin nahi eta horiekin erdaraz hitz egin behar da baina beste askorekin euskaraz hitz egiten dut".* (DBH1eko Kideak)

- **Emaitzak epe ertainera ikus daitezke, ez unean bertan.**
  Epe laburrean erabileran eta jokabideetan eragin nabarmena ikustea oso zaila da, baina argi ikusten da epe ertainean lanketa hau oso baliagarria izango dela nerabeentzat.

Dinamizatzaileak-Irakasleak:

- *"Ele-meleka duela 20 urte hasi zen, DBH sortzearekin batera ez baina handik oso gutxira. Buelta duela 5 edo 6 urte eman genion. Emaitzak ordea... eta bazekiat hau Maratoi moduko bat dekela, emaitzak ez dizkiagu ikusten eta agian Batxilergoan ikusten dizkiagu. Baina ni, nagoen tokian egonda DBH 1-2n, pentsatzen dut hazia botatze bat delan".* (Irakasleak)

- *"Gero zaila DBH 1 eta 2n emaitzak ikustea. Hazia bota eta listo. Horrek urte batzuk behar ditu. Pazientzia behar da".* (Irakasleak)

DBH1n ahalegin berezia egitea egokia ote da? Lortzen al da?

- **DBH1n hizkuntza-mudantzak garrantzia handia du.**
  Adostasuna maila altua dago hizkuntza mudantzen fenomenoaren indarrari buruz, baita hori DBH1ean indarrez gertatzen delako hautematea ere. Hizkuntza-mudantzak bizitzako une esanguratsu batzuetan ematen dira. Lasarte-Oriako nerabeen kasuan DBH1era iristea izaten da une horietako bat: bi ikastetxe ezberdinetako nerabeak elkartzen dira beste eraikin batean. Irakasle, ikaskide eta espazio aldaketa ematen da. Une horretan oso nabarmen ikusten da hizkuntza-arauaren eragina: lagunartean euskara erabiltzen zuten hainbat nerabek harreman berriak gaztelaniaz egiten dituzte edo lehengo harreman batzuk ere gaztelaniara jotzen dute.

Lehen ibilitakoak:

- *"DBH-ra iritsi ginenean Sasoeta eskolakoekin elkartu ginen. Momentu horretan erdararako joera hartu genuen pixka bat".* (Euskara gertu)

- *"DBH-ra iritsi nintzenean Sasoetakoekin elkartu ginela, garai hartan koadrila bat egin genuen. Bertan ondo enkajatzeko, koadrilako hizkuntza gaztelania zenez, gaztelaniaz hitz egiten hasi nintzen, baita nire lagun euskaldunekin ere".* (Euskara nahiko urrun)

- *"DBH1-en, juntatu ginenean Sasoetakoekin gu ere erderara pasa ginen".* (*Gazte eragileen batzordea*)

- *"LH-tik DBH-rako saltoan kristoren aldaketa dago erderara".* (*Gazte eragileen batzordea*)

Orain dabiltzanak:

- *"Gainera orain adin kritikoan daudela esango nuke, DBH1, bigarren hezkuntzara pasa dira eta trantsizioan daude".* (*Kidetzeak* Batxilergoa)

- *"Txikia nintzenean gehiago erabiltzen nuen baina DBH-ra pasatzean pixka bat utzi egin nuen".* (Batxilergoa sentsibilizazio saioak)

- *"Euskarari dagokionez, kalean lehen baino gutxiago egiten dugula uste dut". "Lehen baino euskara gutxiago egiten dugu bai".* (Gazte batzordeak)

- **Lagundu nahi zaie euskara gertu dutenei eta aurrerapausoak ikusten dira: *Gazte eragileen batzordea* eta *kidetzeak.***
  Gazte eragileen batzordeak eta *kidetzeak* izaera intentsiboa dute. Hau da: euskara gertu dutenei begirakoak dira, eta euskara erabiltzeko babesguneak eskaini nahi zaizkie. Argi ikusten da norabide horretan lagungarriak direla.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"13-14 urterekin ez duzu desberdina izan nahi, besteek bezala portatu nahi izaten da".* (Euskara gertu)

  Dinamizatzaileak-Irakasleakk:

  - *"Gazte batzuk kontatu izan didate, DBH 1 eta 2 garaian euskaldunak izateagatik arraro sentitzen zirela. Badakizu adin horretan arraroa denari adarra jotzen zaiola, baztertua izan zaitezke. Ele-melekan indartuak sentitu dira, kidetzeetarako aukeratuak izaterakoan adibidez. Edo, gazte-batzordeetara animatu eta indartuak sentitu zirela".* (Dinamizatzaileak)

DBH3n eta 4n eta Batxilergoan lortzen al da programa egokitzea?

- **DBH3 eta 4n lortu da Ele-meleka sentsibilizazio saioei beste izaera bat ematea, eta zeharkako gaien bidez hizkuntza-sozializazioan laguntzen zaie:**
  Ele-meleka sentsibilizazio saioen abiapuntua eta oinarriak hizkuntza-ohiturei begira jarrita daude. Baina sentsibilizazio saioak DBHko lehen mailatik Batxilergoko 2. maila-ra bitarte egiten direnez beharrezkoa ikusi da tartean zeharkako gaiei heltzea, kultur transmisioarekin eta sare sozialekin lotutako gaiei hain zuzen ere. Lortu da hori egi-tea, programaren oinarriak mantenduta lortu ere. eta programaren oinarriak man-tenduz egitea lortu da.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Beraiek ikusteko euskarazko musika badagoela eta beste gauza asko daudela euskaraz".* (Euskara gertu)
  - *"Kantak entzun genituen eta orduan ba guk entzuten ditugun kantak jarri zenituz-ten eta baita ere euskaraz abestutako kantak, hain entzunak ez direnak. Horretaz bai gogoratzen naizela".* (Euskara nahiko urrun)
  - *"Konturatu nintzen badaudela kanta batzuk euskaraz interesgarriak direnak. Etxera iritsi eta entzuten nituen gainera".* (Euskara nahiko urrun)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Ba nik gehien gogoratzen dudana, musika saioena da. Kanta euskaldunak etab. aurkeztu zenizkigutenean eta gero asmatu egin behar genuela ze kanta zen, kahoot-ak".* (Sentsibilizazio saioak Batxi1-2)

- **Batxilergoan euskararako mudantzak ere ikus daitezke:**
  Batxilergoan euskararako mudantzak ere ikus daitezke. Hainbat arrazoi egon daitez-ke horri begira, baina besteak beste kontuan izan behar da Batxilergoan beste herri bateko ikasleak ere iristen direla institutura eta hainbatek euskaraz egiteko ohitura indartsuak dituztenez eragina dutela lehendik institutuan ikasten zuten zenbait ikas-leengan.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Baina, batxilergora iritsi zenean jende euskaldunagoarekin hasi zen ibiltzen eta euskaraz egiten".* (Euskara gertu)

4

Programa bakoitzarekin lotutako emaitzak

ELE-MELEKA PROIEKTUAREN BARRUAN HAUEK DIRA PROGRAMAK:

- ***Ele-meleka* sentsibilizazio saioak**
  DBH1etik Batxilergoko bigarren mailara. Gazte guztiei begirakoa.
- ***Kidetzeak***
  DBH1etiko eta Batxilergokoak nahastuz. Euskara gertu dutenei begira.
- ***Gazte eragileen batzordeak* / Kultur dinamizatzaileak**
  DBH12an eta DBH3-4an. Euskara gertuko edo nahiko gertu dutenei begirakoa.
- ***Kuadrillategi***
  DBH1etik DBH4ra, euskara gertu eta nahiko gertu dutenei begira batez ere, baina irekia.
- ***Faktoria***
  Batxilergoan. Euskara gertu eta nahiko gertu dutenei begirakoa.
- **Kaleko erabileraren neurketak**
  Batxilergoan. Euskara gertu dutenei begira.
- **Lotura duten programak**
  Bertso eskola eta Noka ikastaroa.

4.1. *Ele-meleka* sentsibilizazio saioak

GALDERA ERAGILEAK

- **Ele-meleka sentsibilizazio saioek laguntzen ote dute hizkuntza-ohituren inguruan hausnartzen?**
- **Euskara gertu edo nahiko gertu dutenen kasuan: laguntzen dute euskara gehiago egitera motibatzen? Eta laguntzen dute hizkuntza-ohiturak aldatu daitezkeela ikusarazten?**
- **Euskara nahiko urrun dutenen kasuan: laguntzen dute euskara gehiago egitera motibatzen? Euskararekin harremana indartu dezaketela ikusten? Euskararekiko jarrerak indartzen?**

- ***Ele-meleka* sentsibilizazio saioek laguntzen dute hizkuntza-ohituren inguruan hausnartzen. Saioen helburuak ondo ulertzen dituzte, dinamika modu positiboan baloratzen dute eta baliagarria da.**
  Ele-meleka sentsibilizazio saioak programaren ardatz nagusietako bat dira. DBHko lehen mailatik Batxilergora bitarteko ikasleekin zenbait saio egiten dira urtero. Beraz, saioen planteamenduarekin asmatzea garrantzitsua da.

  Dinamizatzailea-Irakasleak:

  - *"Ele-melekan lantzen diren edukiak egunerokotasuna dute eta modernoak dira, gainera gogoeta bultzatzen dute: Ez dadila izan eskolan bakarrik entzuten dutena".* (Dinamizatzaileak)
  - *"Edukiak berez politak dira, eleaniztasuna ona dela, hizkuntza bakoitza oso garrantzitsua dela, ama-hizkuntza zaintzea".* (Dinamizatzaileak)
  - *"Ele-melekak egiten duena da aisialdia gelara eraman. Euskara sustatu, baina ez euskara formala erakusteko asmoz".* (Dinamizatzaileak)

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Euskararen egoera ere zein den jakiteko. Euskara sustatzeko orokorrean".* (Euskara nahiko urrun)
  - *"Hasieran azaldu egiten zenuten pixka bat egin beharrekoa eta gero bastante dinamikoa, jokoak".* (Euskara nahiko urrun)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Jendeak euskaraz zenbat egiten duen jakiteko egiten direla uste dut. Bai, eta euskara indartzeko".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- *"Nik uste dut eskolako ikasleei euskararen garrantzia erakusteko dela. Klase gehiago egitea gustatuko litzaidake".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- *"Euskara gehiago erabiltzea, gazteei erakustea egiten direla gauzak euskaraz. Hori da, sustatzea".* (Sentsibilizazio saioak Batxilergoa)

- *"Nik uste dut Ele-melekako saioek 4-5-6 saio horietan euskararen gaia lantzea ahalbidetzen dutela ikasleekin, bestela irakasleon gain egun puntualetan geratzen zaigu. Bestela, askotan Euskararen eguna eta Korrikako bueltan geratzen da lanketa".* (Irakasleak)

- **Saioen planteamenduak parte-hartzea errazten du eta dinamika egokia da horretarako.** Metodologiak garrantzia handia du sentsibilizazio saioetan: inor epaitu gabe hizkuntza-ohituren inguruan hausnartu nahi da hainbat ondorioetara iristeko eta baliabide batzuk ere eskaintzeko. Kutsu aktiboa eta parte-hartzailea dute saioek. Dinamizatzaileak ongi egokitzen dira nerabeen beharretara.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Jendeak ilusioarekin hartzen zituen klaseak gure gelan behintzat".* (Euskara nahiko urrun)

  - *"Nire ustez ikastolan euskarazko klaseak badaude. Hizkuntza nagusia euskara da. Baina hor zer egiten duzu... aditzak eman, literatura... horrek ez du laguntzen euskararen erabileran. Ele-meleka adibidez, bai zela euskararen erabilera bultzatzeko, hitz egin egiten genuelako, gure arteko elkarrizketak eztabaidak... nire ustez horrek bai laguntzen duela ohiturak aldatzeko eta euskara erabiltzen ez duenak erraztasuna lortzeko baliagarria dela. Orduan, ikastolak ere erakusteko modua aldatu beharko luke".* (Euskara nahiko urrun)

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Niri egia esan, musika eta sare sozialena asko gustatu zitzaidan ze ez dute ezer ezagutzen. Baten batek agian zerbait bai".* (Dinamizatzaileak)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Nire ustez klase oso interesgarriak dira. Euskaraz jokoak egin eta modu berean euskal ospetsuak ezagutzeko adibidez".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

  - *"Jokoak egiten genituen Ikerrekin, lehia polita sortzen zen gure artean".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi)*

  - *"Guk Nahiarekin gai desberdinei buruz hitz egiten genuen, Korrikari buruz, euskararen inguruan...".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- *"Euskarari buruzko jolasak egiten genituela gogoratzen dut".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- *"Gogoratzen dut euskarari buruz hitz egiten genuela eta baita Lasarteko hainbat jai edo ekintzetaz".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- *"Klaseak batzuetan motzak gelditzen ziren. Agian ordu bat gauza batekin eta bestearekin…". "Hori da batzuetan ez genuen ariketa bukatzen"; "Ahalko balitz, saioak luzeagoak izan beharko lirateke".* (Sentsibilizazio saioak Batxilergoa)

- **Lanketak eragin mugatua duela ikusten dute.**
  Programa ondo baloratu arren saio kopurua mugatua da eta horrek eduki batzuetan sakontzeko aukerarik ez du ematen.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Beno… jendeak ondo pasatzen zuen, jendeak parte hartzen zuen baina ez da erraza hain saio gutxietan asko ezagutu edo ikastea".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

  - *"Nire ustez, erreferenteak ezagutzea ondo dago baina modu sakonago batean egingo nuke. Influenzerrak zuzenean jaso beharrean guk egitea lanketa eta ikerketa".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- **DBHko lehen zikloan hizkuntzen gaineko gogoeta egitea ez da oso emankorra.**
  Ziklo honetara zuzendutako edukiak eta dinamika egokitzeko ahalegina egin da, baina ez da behar bezala lortzen. Hizkuntza-ohituren gaia aztertzen da ziklo honetan, baina gaur egungo planteamenduarekin ez dira helburuak ondo lortzen.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"DBH 1 eta 2n asko kostatzen zaie erantzun logikoak edo askotan erantzunari garapena ematea asko kostatzen zaie".* (Dinamizatzaileak)

  - *"Nik uste dut DBH2-n oraindik ez daudela ohituta".* (Dinamizatzaileak)

  - *"Txikiekin ez da erraza. DBH 1 eta 2n oraindik oso gazteak dira eta ez dira iritsi hausnarketa horietara. Egiten dute ateratzen zaiena, inguruak egiten duena… gero bai batxilergora iristen direnean oso saio interesgarriak atera ohi direla. Adin batekin, beste garapen bat dute eta gai dira lasai eta gustura hitz egiteko".* (Dinamizatzaileak)

  - *"Agian edukiari buelta eman behar zaio. Ba ez genuen asmatu diseinuarekin asmatu".* (Irakasleak)

- **Euskara gertu dutenei protagonismoa emateko bide bat da.**
  Sentsibilizazio saioak institutuko ikasle guztiei begirakoak dira. Baina saio aktibo eta dinamikoak dira, elkarrekintza ere eskatzen dutenak. Dinamikak berak eta lantzen diren eduki batzuk euskara gertu dutenak eroso eta protagonista sentitzera begira lagungarriak dira.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Euskara gertu dutenentzat lagungarria: "Nik lehengo urtean ikusi nuen, gela oso erdaldun batean hiruzpalau euskaldun baldin bazeuden, harrotasun puntu bat sentitzeko euskaldun izateaz. Edozein galdera egiten nien eta erantzuna bazekiten adibidez".* (Dinamizatzaileak)



4.2. Kidetzeak

GALDERA ERAGILEAK

- **Kidetzeen dinamika eta edukiak egokiak dira? Saioak aproposak dira?**
- **Ikuspegi intentsiboa: euskara gertu eta nahiko gertu dutenak elkartu nahi dira. DBH1ekoekin hizkuntza-ohiturei begira babes bat eskaini nahi zaie eta atzera egin ez dezaten lortu. Batxilergokoekin ahaldundu egin nahi dira eta erreferente izatea lortu. Planteamendua egokia da?**

- **Kidetzeek badute hizkuntza ohiturak astintzeko nahikoa indar.**
  Kidetze saioetan Batxilergoko ikasleek DBHko lehen mailako ikasleekin hizkuntza-ohituren gaia lantzen dute eta horri begirako konpromiso edo erronkak proposatzen dizkiete. Jarreretan eta jokabideetan eragin bat baduela ikusten da.

  Dinamizatzailea-Irakasleak:

  - *"Bai, eta helduak saiatzen dira beraiei erronkatxoak jartzen. Beno, saiatu zuen hizkuntza ohiturak aldatzen. Eta lehengo urtean nahiko positiboa izan zen, guraso bat edo beste etorri zitzaigulako galdetzera ea zer egin ote genuen. Bat-batean hasi zitzaiola dena euskaraz egiten... lehengo urtean bai izan zela zeozer positiboa eta lortu zen, gustura geratu nintzen".* (Dinamizatzaileak)

Orain dabiltzanak:

- *"Nire konpromisoa izan zen euskara gehiago erabiltzea klasean. Eta euskaraz esango nuke ba berdin gaudela, ondo. Agian lehen baino gehiago hitz egiten dut".* (DBH1eko Kideak)

- *"Gure taldean gutxienez euskaraz egiten zuten. Etorri ziren bi saioetan bai eta gero kalean elkartu ginenean ere euskaraz".* (Kide nagusiak)

- *"Nire taldeko gehienek euskaraz egiten zuten. Egiten ez zutenek behintzat euskara gehiago ikasteko asmoa zuten... orduan ongi".* (Kide nagusiak)

- **Hizkuntza-ohituretan eragiteko baliagarria da, gutxienez kontentzio moduan.**
  Nerabeen arteko harremanetan hizkuntza-araua gaztelania dela ikusi da eta indar handia duela. *Kidetzeak* moduko programa batek euskararen erabilera asko indartzea baino beherakada nabarmenegia ez izatea lortzen laguntzen du.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Ez da euskaraz askoz gehiago egingo dutela, gehiago da ez dezatela utzi. Hori zen helburuetako bat. Eredu izan daitezkeen kideak ezagutzea eta batxilergokoei erreferente izaten, ahalduntzen eta txikiagoei hizkuntza-ohiturekin laguntzea" "Bai, nik uste dut hori dena lortzen dela".* (Irakasleak)

- **Harreman berriei begira ere lagungarria da.**
  Institutura iristean bi ikastetxetako nerabeak nahasten dira, eta sortzen diren harreman berri horietako batzuei begira *kidetzeak* moduko programa lagungarria da.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Bai, euskara indartzeko. Positiboa ba lagunekin zaudela eta lagun berriak egiten dituzula".* (DBH1eko Kideak)

- **Kidetzeen proiektuak kide helduak erreferente direla konturatzeko balio du.**
  Kidetzeetan Batxilergoko ikasleei DBHko lehen mailako ikasleen eredu eta erreferente izatea proposatzen zaie, ahalduntzera begira bide bat egina duten nerabeak dira.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Gure helburua hori zen, euskara bultzatzea".* (Euskara gertu)

  - *"Bai saiatuko zirela aldatzen baino... aurten ere joan gara gazteengana eskolara pare bat konturekin eta nabaritu dugu dena erderaz egiten zutela".* (Euskara gertu)

- *"Zaharragoek hizkuntza bat erabiltzen badute, normalean errepikatu egiten da eta erreferenteak falta zaizkie agian. Eta kidetzeen proiektua oso ondo dago ze ikusi zuten gure adineko jendeak oraindik euskaraz egiten duela eta igual horrek laguntzen du".* (Euskara gertu)

Orain dabiltzanak:

- *"... baina txikitatik hasten badira ohiturak aldatzen eta gainera handiagoak diren erreferente batzuekin, euskaldunak direnak eta gauzak erakusten ba baliagarria da. Guk adibidez, kantak bidaltzen genizkien Whatsapp taldetik eta ezagutzeko eskertu zuten".* (Batxilergoko Kideak)

Dinamizatzailea-Irakasleak:

- *"Txikiekin asko ez dut hitz egin horretaz. Handiekin bai hitz egin dudala eta ilusioa egiten die herriko txikiak ezagutu eta beraiekin egotea, laguntzea eta baita ere komentatu izan didate arduratuta daudela txikiagoek euskara gutxiago egiten dutelako. Beti pasatzen da hori, nire anaiak etxean euskaraz egiten du baina kalean dena erdaraz".* (Dinamizatzaileak)

- **Dinamika egokia da, kide gazteak gustura aritzen dira eta ondo ulertzen dituzte helburuak.**
  Kidetze saioak antolatzen dira. Kide helduak (Batxilergokoak) eta kide gazteak (DBHko lehen mailakoak) elkartzeko gune dinamizatuak. Saio horien dinamika ludikoa eta parte hartzailea da, eta harremanak modu egokian sortzen eta kidetzeen helburuak lortzen laguntzen du.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Euskara gehiago sustatzeko, hori da lagunekin gustura egoten gara eta ez dut ikusten alde txarrik".* (DBH1eko Kideak)

  - *"Oso ondo Kidetzeetan, gogoratzen dut jolasak egin genituela eta oso ondo pasa genuen eta bi saio egin genituen".* (DBH1eko Kideak)

  - *"Ondo, jokuak egiten genituen zaharragoekin eta 3 edo 4 saio egin genituen".* (DBH1eko Kideak)

- **Kidetze programa ondo antolatzeak lan handia eskatzen du.**
  DBHko lehenengo mailako ikasleen kasuan zein ikaslek parte har dezaketen deialdia egin aurretik lantzen da. Hau da: ez da programa erabat irekia eta euskara gertu dutenei babesgune bat eskaintzeko egiten da. Horrek lanketa handia eskatzen du, baita Batxilergoko kideak formatzeak ere.

  - *"Nik uste dut balio duela baina kristoren antolaketa da. Oso ondo antolatu dugu".* (Irakasleak)

4.3. *Gazte eragileen batzordeak /* Kultur dinamizatzaileak

GALDERA ERAGILEAK

Gazte eragileen batzordeek laguntzen ote duten euskara gertu edo nahiko gertu dutenen kasuan...

- **Beraien arteko hizkuntza ohiturak indartzen edo finkatzen?**
- **Ahalduntzen eta eragile izan daitezkeela konturatzen?**
- **Euskara sustatuz protagonista izaten?**

- **Hizkuntza-ohiturak indartzen edo finkatzen laguntzeko programa baliagarria da.** Batzorde hauek euskararen erabilerarako babesguneak izatea nahi da: euskaraz normaltasunez arituko diren guneak. Helburu hori ondo betetzen du eta horrek eragina du parte hartzen dutenen arteko hizkuntza-ohituretan.

Lehen ibilitakoak:

- *"Bai guri ere Batzordeak 'bueltatu' gintuen euskeraz aritzera. Ze DBH-ra iristean guk ere asko egiten genuen erdaraz", "batzordeko kide batzuek ez zuten lagunartean euskaraz aritzeko hainbesteko ohiturarik, baina guregana hurbiltzean euskaraz egiten zuten".* (Gazte batzordea)

- *"Batzordeak eragin duela jende gehiagok nirekin euskaraz egin dezan".* (Gazte batzordea)

- *"Kontzienteki egiten dut orain. Umeagotan natural ateratzen zitzaidana egiten nuen", "horrelako tokietatik pasatzeak pizten dizu kontzientzia eta joe, heldutzen goazen heinean". "Nire adineko beste kuadriletako jendearekin elkartzean badakite euskaraz egiten dudala".* (Gazte batzordea)

Orain dabiltzanak:

- *"Jendea euskararen aldeko gauzak egitera animatzeko egiten da".* (Gazte batzordeak)

- *"Gazte eragileen batzordea euskararen babesgune bat da: Guk euskaraz egiten dugu nahiz eta hitz batzuk erdaraz egin".* (Gazte batzordeak)

- *"Euskara bultatzeko, nik uste dut lehen baino gehiago egiten dugula euskaraz, nire koadrila nahiko euskalduna da".* (Gazte batzordeak)

- *"Batzordeak izan dira niretzako indarguneak".* (Irakasleak)

- *"Horiek oso ondo, ni behintzat egon nintzenean horiek oso ondo".* (Irakasleak)

- **Ahalduntzeko eta eragile izan daitezkeela konturatzeko programa baliagarria da.**
  Batzordetako kideak euskara sustatzearen aldeko eragileak dira. Gustura ari badira eragina du beren hizkuntza-ohituretan eta ahalduntzen ere laguntzen die: testuingurua ulertzen, eragile direla eta emaitzak lortu ditzaketela ikusten, eta abar.

  Dinamizatzailea-Irakasleak:

  - *"Nire ustez ahalduntzeko garrantzitsua da. Baina, hemen ere nire ustez batzordean egon behar du benetan nahi duenak. benetan gogotsu daudenak".* (Dinamizatzaileak)

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Ondo pasatzeko eta izan ez genuen espero hainbeste emaitza lortzea", "bazegoen euskara sustatzearen helburua eta euskara gehiago erabiltzea. Baina gu, berez, elkartzen ginenean, ez zen 'euskara, euskara, euskara…'". "Bai, euskararen alde baina gehiago zen lagunartean egon, bazkaldu eta zeozer egitea".* (Gazte batzordea)

  - *"Espero baino askoz jende gehiago apuntatu zen. Espero genituen betiko hamarrak eta gero azkenean jende asko azaldu zen".* (Gazte batzordea)

  - *"Txikienak ginen (Oriarteko eraikinean) eta hala ere Batxikoak ere apuntatu ziren".* (Gazte batzordea)

  - *"Guk gauzak antolatzean, hasieratik laguntasuna agian ez, baina Batxilerrekoekin harremana sortzen hasi ginen, ezagunak bihurtzen hasi ginen. Eta horrez gain, Euskara Batzordean egoteak etiketatu gintuen".* (Gazte batzordea)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Nik beharrezkoa ikusten dut, irakasleei laguntzeko eta azkenean denentzat, euskararentzat beharrezkoa da eta bai, beharrezkoa ikusten dut".* (Kultur dinamizatzaileen batzordea)

- **Euskara sustatuz protagonista izan daitezkeela konturatzeko programa baliagarria da.**
  Ekimenak antolatu eta bideratzeak beste ikasleen artean protagonismo bat ere ematen die (ikasgeletatik pasatzea programa azalduz, ekimenen antolaketan irakasleekin duten harremanean eta abar). Euskara gertu dutenak erdigunean jartzeko aukera bat da.

Lehen ibilitakoak:

- *"Bai, guretzako zen denborapasa bat bezela. Bai, euskararen alde baina gehiago zen lagunartean egon, bazkaldu eta zeozer egitea. Gainera, gustatzen zaigu saltsan aritzea, antolatzea. Bai, bai. Eta ekintzak zeudenean, Euskaraldia, Korrika eta halakoak, errazago antolatzen genituen gure gauzak, ezerezetik asmatzen aritzea baino".* (Gazte batzordea)

- *"Denek zeukaten argi zein ginen gu eta zer egiten genuen. Eta hori niri positiboa iruditzen zait".* (Gazte batzordea)

- *"Batzordean egoteak ematen zizun status bat".* (Gazte batzordea)

- *"Ikaskideek, irakasleek... Denek zeukaten argi zein ginen gu eta zer egiten genuen. Eta hori niri positiboa iruditzen zait".* (Gazte batzordea)

Orain dabiltzanak:

- *"Oso ondo pasa dugu. Euskararen egunerako pultserak egin genituen eta Korrikarako pankarta bat egin genuen", "Instagrameko kontu bat egin genuen eta bertan lehiaketa bat egin genuen, Lasarteko pertsonaien inguruan".* (Gazte batzordeak)

- **Institutuan irakasleek kontuan hartzen dituzte.**
  Ekimenen antolaketan dabiltzanenean irakasleekin harremana dute, eta euskararekin sentsibilizatuta dauden irakasleek baloratzen dute horretan aritzea.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Irakasleek lagundu ez baina baloratzen dute".* (Kultur dinamizatzaileen batzordea)

  - *"Niri gustatuko litzaidake beraiek ez baloratzea, hau da, honen beharra ez egotea. Baina beno, hau da egoera".* (Kultur dinamizatzaileen batzordea)

- **Herriko sarea osatzeko eta herrigintzara jauzi egiteko aukera eskaintzen du gazte batzordearen dinamikak.**
  Institutuko ekimenetan parte hartzeaz gain, herri mailako jardueretan ere parte hartzen dute (Euskararen Maratoia, adibidez). Gainera, Ttakun Euskara Elkarteko dinamizatzaileekin harremana dute beraiek direlako batzordea gidatzen dutenak.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Nire ustez ekarpen handiena edo nabariena izan da beste adinetako jendearekin erlazionatu izana. Guk gauzak antolatzean, hasieratik laguntasuna agian ez, baina Batxilerrekoekin harremana sortzen hasi ginen, ezagunak bihurtzen hasi ginen. Eta horrez gain, Euskara Batzordean egoteak etiketatu gintuen".* (Gazte Batzordea)

- **Etiketatzeak ondorio negatiboak ere eragin ditzake.**
  Euskara batzordeko kide izateak protagonismoa ematen die institutuan, baina behar bada hori ez da positiboa kasu guztietan.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Euskara Batzordean egoteak etiketatu gintuen".* (Gazte Batzordea)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Bai, bereziki behean. DBH 1-2n…".* (Irakasleak)

- **Batzordeak eratzeko zailtasunak izaten dira.**
  Batzordeetan parte hartzea borondatezkoa da: deialdi bat egiten da eta nahi duenak ematen du izena. Klase orduetatik kanpo elkartzen dira. Ondorioz, batzuetan talde jendetsuak eta gogoz aritzen direnak izaten dira, baina beste batzuetan, aldiz, talde txikiak . Programak duen arriskuetako bat da.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Nire ustez oso zaila da gazte batzordea osatzea. Hasteko, boluntarioa delako. Batzuetan, klasea galdu behar izaten dute normalean ikasle onak izaten direnez klasea ez dute galdu nahi".* (Dinamizatzaileak)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Egia da aurten, antolatzeko gutxi ginela eta ahal duguna egiten saiatu gara".* (Kultur dinamizatzaileen batzordea)

4.4. Nerabeen Ahobizi dinamikak

GALDERA ERAGILEAK

- **Ahobizi dinamikek laguntzen al dute gertuko harreman batzuetan euskara indartzen edo mantentzen?**
- **Ahobizi dinamikek balio al dute euskara gertu dutenak ahalduntzeko eta euskara gehiago erabiltzeko jarrerak indartzeko?**
- **Ahobizi dinamikek laguntzen al dute euskara nahiko gertu dutenak eta euskara nahiko urrun dutenak euskarara hurbiltzen?**

- **Lehenengo aldiz egin zen ekimena eraginkorra izan zen, ondoren ezaugarriak aldatu dira eta euskara gertu dutenentzat ez da baliagarria.**

2018ko Euskaraldian ahalegin berezia egin zen 16 urtetik beherakoei begira Euskaraldia egokitu eta eraginkorra izan ote zitekeen aztertzeko. Emaitza eta ondorio oso interesgarriak lortu ziren. Geroztik Ahobizi dinamika egin izan dira baina helburu xumeagoekin eta baliabide gutxiago eskainiz. Ondorioz, hizkuntza-ohituretan eragin ahulagoa da.

Lehen ibilitakoak:

- *"Lehenengo aldi horretan jendea motibatzen zen. Jolas moduan hartu bazuten ere, euskeraz entzuten zen askoz gehiago".* (Gazte batzordea)
- *"Lehenengo urtean jendea asko motibatu zen".* (Gazte batzordea)
- *"Jendeak bere artean esaten zuen 'euskeraz!'".* (Gazte batzordea)
- *"Ez zen serio hartzen zeren euskaraz egiten genuenok ahobizi hartzen genuen baina horrek ez zuen ezer aldatzen guk euskaraz egiten genuelako eta bestek berdin jarraitzen zuten".* (Gazte batzordea)

Dinamizatzaileak-Irakasleak:

- *"Gero rol horiek ez dira betetzen. Jendea apuntatzen da kanpoan ez geratzeagatik ni Belarriprest eta dena. Lehengo urtean adibidez txapa pertsonalizatuak egin genituen, bakoitzak bere txapa... gero horrek hizkuntza-ohituran ez duela aldaketa eragiten... ba seguruenik ez. Zeoze eragiten badu, baten batek aldatzen badu? Ba ederki, horrek izan behar du helburua".* (Dinamizatzaileak)
- *"Lortu nahi da 400, 500 ez dakit zenbat ikaslek parte hartzea, baina segun zeini ez zaio parte hartzen utzi behar. Kontuarekin egin behar da. Ez du balio denak sartzea sartzeagatik. Gero, serio parte hartzen dutenentzako bai dela eragingarria batzuentzako behintzat saiatzen dira".* (Dinamizatzaileak)

- **Euskara nahiko gertu edo nahiko urrun dutenei laguntzen die euskara gehiago erabiltzen eta hizkuntzarekin harremana indartzen, baina hizkuntza-ohituretan ez du eraginik.**

  Ekimenak badu eragina momentuko hizkuntza-harremanetan eta izena ematen dute hainbat saiatzen dira euskara gehiago erabiltzen. Baina azken ekitaldietan ekimenaren helburuak hizkuntza-ohituretan benetako eragina izatera baino gehiago hizkuntza-jarreretan eragitera zuzenduta dago. Hau da: nerabeek ikus dezatela, nahi badute, euskara gehiago erabiltzeko eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko gai direla, eta gainera gustura egin dezaketela.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Ez dakit... nik txapa hartzen nuen opari gisa, ez dizut gezurrik esango. Baina, bai euskara gehiago egiten nuen jendea gerturatzen zitzaidalako euskaraz. Nahi gabe egiten nuen euskara gehiago".* (Euskara nahiko urrun)

  - *"Nahi edo ez euskara gehixeago erabiltzen genuen. Orduan, nire ustez txaparen dinamika dibertigarria zen".* (Euskara nahiko urrun)

  - *"Baina, bai euskara gehiago egiten nuen jendea gerturatzen zitzaidalako euskaraz. Nahi gabe egiten nuen euskara gehiago".* (Euskara nahiko urrun)

- **Masiboa izatea nahi da, baina dinamika ez bada ondo lantzen jende askok parte har dezan, arazoak ere ekar ditzake.**

  Ekimen honek arrakasta izan dezan eta Gazte eragileen batzordekoentzat ekimen aberasgarria izan dadin izen-emate handia izatea lortu behar da. Askok izena ematen badute giro egoki bat sortzen da, baina gutxik izena ematen badute bazterreko ekimen moduan geratzen da.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Batzordekoek antolatzen dute eta batzordeko kideak gela horretan badaude, pixkat badago presioa hori, benga apuntatu... eta gero apuntatuta egon den jende horrek boikoteatu egin izan du".* (Dinamizatzaileak)

  - *"Aurten batzordekoak joango dira galdetzera zein apuntatuko den eta zein ez. Joan ziren bi taldeetan, talde batek esan zien nahi zuenak apuntatzea zeukala eta besteek bai edo bai apuntatu behar zutela. Eta hori... beraientzako bazen motibagarria ahalik eta gehien apuntatzea. Baina gero ez zutela egingo... beraien artean egon zen eztabaida...".* (Dinamizatzaileak)

4.5. *Kuadrillategi*

***Kuadrillategi* programak laguntzen ote du...**

- **Euskararen erabilera indartzen?**
- **Euskararekin harreman indartsua izaten?**

- **Euskararen babesgune bezala ondo betetzen du helburua: parte hartzaileek ezagutzen dituzte helburuak eta euskararen erabileran indartzen laguntzen du.**
  Kuadrillategi aisialdik programa bat da eta nerabeei euskaraz aritzeko babesgune bat eskaini nahi die. Izaera estentsiboa duenez (gazte askok parte hartzea bilatzen da), hizkuntza-ohituren aldetik ezaugarri ezberdinetako gazteek parte hartzen dute. Baina helburuak argi dituzte, eta oro har, babesgune moduan helburuak betetzen ditu.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Nire ustez bai, iruditzen zait garrantzitsua dela. Adin horretan ez zara kontziente. Adibidez DBH3n ostiralero bagenekien hor euskaraz ariko ginela. Orduan, euskaraz aritzeko ohitura ez duenak ba euskaraz egin, ondo pasa, ekintzak egin, asteburu pasa joan... hor inguru faltaren aitzakiarik ez dago. Euskaraz aritzeko aukera dago eta oso ondo dago".* (Euskara nahiko urrun)

  - *"Euskaraz lasai aritzeko tarte bat, nahiz eta 2 ordu izan sikiera".* (*Kuadrillategi-Faktoria*)

  - *"Helburua euskara sustatzea bada, nik uste dut baietz. Gogoratzen dudana da erabat euskaraz aritzen ginela".* (*Kuadrillategi-Faktoria*)

  - *"Egia da euskaraz aritzen ginela, nahiz eta batzuk nahiz eta KTG-n egon gaztelaniaz jarraitzen zuten".* (*Kuadrillategi-Faktoria*)

  - *"Eta bigarren helburua ondo pasatzea bada, bai. Betetzen du".* (*Kuadrillategi-Faktoria*)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Ba, gazteek ondo pasatzeko. Bai, gazteei aisialdi dibertigarria eskaintzeko eta euskara indartzeko".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

  - *"Bai Kuadrillategik egin zuen hausnarketa hori eta arnasgune izatetik erabilera sustatzera ekin zitzaion ezta? Babesgune moduko bat, Euskararen Maratoira gazteak eraman... horrelako gauzak... planteamendua ondo ezta?" ".* (Irakasleak)

- *"Lehengoan arretak beste gauza batek deitu zidan. Ostiraletan zaintza daukat bi ordu segidan. Eta jendea etortzen da askotan giltzen bila edo. Ostiraletan izaten dute Kuadrillategi ezta? Eta beti erdaraz aritzen direnak euskaraz entzun nituen. Eta hori niretzako oso ona da ze eskola barruan erderaz aritzen dira. Agian, euskaraz aritzea estatus aldetik... ez da hain ondo ikusi, e. Baina, ostra, dozena-erdi bat euskaraz ari ziren gutxienez, bejondeiela".* (Irakasleak)

- **Gustuko jarduera delako ematen dute izena eta euskararekin harremana indartzeko baliagarria da.**
  Kidetzeetan edo Gazte eragileen batzordeetan ez bezala, kasu honetan programan izena ematen dutenek ondo pasatzea dute helburu. Hau da: euskaraz izatea zeharkako ezaugarri bat da. Horrekin lortzen da gazte asko hurbiltzea, eta hainbaten kasuan euskararekin harremana indartzeko bide eraginkorra da.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Ostiral arratsaldeetan zerbait desberdina egiten dugu eta ondo pasatzen dugu".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)
  - *"Egiten ditugun gauzak dibertigarriak direlako".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)
  - *"Lagun guztiak elkartzen gara eta oso ondo pasatzen dugulako".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- **Jarduera ezberdin asko egitea positiboki baloratzen dute, nahiz eta beti ez diren arrakastatsuak edo ez duten gogorik.**
  Kuadrillategi ikasturte osoko programa da eta astero elkartzen dira taldeak. Saio asko direnez, jarduera guztiek arrakasta izatea zaila da. Baina borondatezkoa dela kontuan izanda eta bataz besteko parte hartzea ona izaten dela, programa arrakastatsua da.

Orain dabiltzanak:

- *"Batzuetan gauza dibertigarriak egiten ditugu eta besteetan ez dugu ekintza egiteko gogorik izaten. Gauza asko egin ditugu, saskibaloi txapelketa, kamixetak tintatu, pelikulak ikusi…".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- *"Bai, oso ondo pasa dugu. Frontoira ere joan gara, altxorraren bila ere egin dugu". "Mahai-jokoak ere bai eta tonbola, Errekorrak eta Beldur Barikeko bideoa ere bai".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- *"Nire ustez oso ondo dago baina batzuetan jendeak ez du parte hartu nahi eta horrek besteoi fastidiatzen digu".* (Sentsibilizazio saioak + *Kuadrillategi*)

- **DBH3n eta DBH4n programaren izaera aldatzen da eta lanketa esanguratsuak egin daitezke.**

  Institutuak bi eraikin ditu: DBHko lehen zikloa dago batean, eta DBHko bigarren zikloa eta Batxilergoa bestean. DBHko lehen ziklokoekin batzorde bat osatzen da eta DBHko bigarren ziklokoekin beste bat. Dinamika errepikakorra izan ez dadin DBHko bigarren zikloan kultur transmisioari eta sare sozialei begira egiten dute lanketa.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"DBH 3-4n gauza desberdinak egiteko aukera ematen duela iruditzen zait. Jende gutxiago egoten dira baina interes handiagoa izaten dute. Hor proiektuak egin daitezke edo beste mota bateko dinamikak. Jolasetik abiatu baina proiektu bat buruan. Dinamiketan, hausnarketa gehiago eragiten duten jarduerak proposatuz".* (Dinamizatzaileak)

  - *"DBH 1n eta 2n mordo bat apuntatzen dira. Asko-asko. Eta hor gehiago jolasak egiten dira, ekintza aktiboak, askotan borroka beraiekin. Benga goazen hau egitera… jolasa. DBH 3-4n gauza desberdinak egiteko aukera ematen duela iruditzen zait. Jende gutxiago egoten dira baina interes handiagoa izaten dute".* (Dinamizatzaileak)

- **DBH4n parte hartzaileak erakartzea kosta egiten da.**

  DBH3 eta DBH4n programari izaera ezberdina eman arren, DBH4n gazteak erakartzea gehiago kostatzen dela ikusten da.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Eta gero DBH4-n azkeneko urteetan erakartzea kosta egin zaigu. Gazteak erakartzea zaila izan da, ez bazaie proiekturik proposatzen, beraiei asko interesatzen zaie", "Nire ustez, batzuei pasatzen zaiena da Gaztekluban hasten direla, Lehen Hezkuntzarako aisialdi programan. DBH 1, 2 eta 3 Kuadrillategi eta ostiralero zerbait edukitzeaz nekatu ere egingo dira…".* (Dinamizatzaileak)

4.6. *Faktoria*

***Faktoria* programak laguntzen ote du...**

- **Euskararen erabilera indartzen?**
- **Euskararekin harreman indartsua izaten?**

- **Programa erakargarria da, euskararen babesgune bat da eta hizkuntza-ohituretan eragiteko baliagarria.**
  Batxilergoko ikasleei begira egiten den programa hau ere borondatezkoa da eta hainbat aldiz elkartzen dira ikasturtean zehar. Saio horiek babesgune bat dira euskararentzat, eta programak eragina du saio horietatik kanpo beraien arteko harremanetan ere.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Faktorian adibidez, bilerak egiten genituen ostiralero eta joera handia genuen euskaraz egiteko. Gero, bidaia egin genuenean, 7 egun gogoratzen ditut euskaraz beteta. Euskara pila bat egiten genuen".* (Euskara nahiko urrun)

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Burura etorri zaizkit aurtengo gazte batzuk. Faktoriara etortzen dira eta badakit bizi guztian beraien artean erdaraz egin izan dutela. Baina, hala ere etorri egin dira. Nik ustet hori dela iritsi zaielako beste urteetan zer egin izan duten, ondo pasa dutela, bidaia egin dutela... orduan nik uste dut Faktoriak izen 'on' hori edo badaukala ikasleen artean".* (Dinamizatzaileak)

  - *"Nik uste dut Faktorian ez direla joaten hizkuntzagatik. Badakite bidaia dagoela".* (Dinamizatzaileak)

- **Herrigintzarekin lotura egiteko bide egokia da.**
  Faktoria programaren barruan parte hartzaileek proiektu bat garatzen dute eta lanketa horretan herriko zenbait eragilerekin harremana dute. Herrigintzako eragile horiekin harremana egitek bidea da.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Eta Faktorian berriz, proiektu bat lantzen da eta herrigintzan eragiten saiatzen gara".* (Dinamizatzaileak)

  - *"Soziala eta inguru euskaldunetara bideratzen saiatzen gara. Sorgin Jaiak edo... positiboa da".* (Dinamizatzaileak)

4.7. Kaleko erabileraren neurketak

GALDERA ERAGILEAK

- **Kaleko erabileraren neurketak aurrera eramatea dinamika egokia da?**
- **Euskara gertu eta nahiko gertu ahalduntzeko eta eragile izan daitezkeela konturatzeko baliagarria da?**

- **Kaleko erabileraren neurketen bidez pertzepzio eta aurreiritzi batzuk aldatzen dira, Lasarte-Orian euskararen benetako egoera ikusten baitu.**
  Lasarte-Oriako Udalak urtero egiten du euskararen kaleko erabileraren neurketa. Neurtzaile lanetan aritzen direnak Batxilergoko ikasleak izaten dira. Zeregin horrek laguntzen die herriko euskararen erabileraren benetako egoera nolakoa den ikusten.

  Dinamizatzaileak-Irakasleak:

  - *"Bai, nik uste dut balio diela herriaren egoera hobeto ezagutzeko eta ikusteko ze gutxi hitz egiten den. Gero, beste herrietako datuak erakusten dizkiet eta... ostra... Lasarten oso gutxi hitz egiten da".* (Dinamizatzaileak)

  - *"Ze gutxi hitz egiten den jabetzeko, ezta?".* (Dinamizatzaileak)

5

Zeharkako emaitzak

GALDERA ERAGILEEZ GAIN ETA PROGRAMA BAKOITZAREN INGURUAN ATERATAKO EDUKIEZ GAIN, EZTABAIDA SAIOETAN HIZKUNTZA-SOZIALIZAZIOAREKIN LOTUTAKO BESTE ZENBAIT EMAITZA ERE AGERTU DIRA.

Gai esanguratsuak direnez, eta kasu batzuetan asko errepikatu diren ideiak ere badirenez, horik ere jaso egin dira.



- **Euskararen erabileraren egoera okertzen ari den pertzepzioa dute irakasleek eta programan lehen parte hartu izan zutenek, eta gaur egun dabiltzanek hori berresten dute.**
  Euskaratik gaztelaniarako mudantza Bigarren Hezkuntzara iritsi baino lehenago ematen da askoren kasuan, eta ondorioz, Bigarren Hezkuntzara iristean gaztelaniazko hizkuntza-ohiturak oso finkatuta daude, baita hizkuntza-araua ere.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Nik uste dut generaziotik generaziora gutxiago egiten dela".* (Euskara gertu)
  - *"Urteekin nire ustez jaisten ari da erabilera".* (Euskara gertu)
  - *"Gaur egungo egoera okerragoa, eta azkarrago hasten da erdararako joera".* (Gazte batzordea)
  - *"Oso gaizki, okerrago, pfff".* (Gazte batzordea)
  - *"Gu txikiak ginenean bazegoela aldea 'Landaberri euskera eta Sasoetan erdera' baina ya ez".* (Gazte batzordea)
  - *"DBH-n eman genuen aldaketa ya LH-n egiten hasita edo eginda dutela ya".* (Gazte batzordea)
  - *"Kristoren diferentzia ikusten dut. Ez da apenas euskararik entzuten gazteen artean Lasarten".* (Gazte batzordea)
  - *"Ahizpa bat daukat, eta bera juxtu kuadrilla oso txikia dira eta euskaraz egiten dute, baina bakarrak omen dira".* (*Kuadrillategi-Faktoria*)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Nire ustez, Lasarte-Orian behintzat, euskararekiko pentsamendua oso kritikoa da. Gaur egungo gazteek ez dugu euskaraz hitz egiten. Zerbait txarra balitz bezala ikusten dugulako".* (Sentsibilizazio saioak eta *Kuadrillategi*)
  - *"Ez dugu euskaraz asko hitz egiten".* (Sentsibilizazio saioak eta *Kuadrillategi*)
  - *"Ni gogoratzen naizenetik beti gazteleraz gehiago. Egia da, Landaberrin geundenean gutxiago kostatzen zitzaigun euskaraz egitea baina hori, gogoratzen naizenetik gazteleraz gehiago lagunekin".* (Sentsibilizazio saioak Batxilergoa)
  - *"Ez dakit Lehen Hezkuntzakoekin hitz egin duzuen baina LH-koek ere esan didate erdararen erabilera urte gutxitan asko zabaldu dela. Lehen 5.mailakoek eta dena euskaraz egiten zutela baina orain…".* (Irakasleak)

- **Euskara nahiko urrun dutenek ere, bere sentitzen dute gutxi erabili arren.**
  Eztabaida taldeetan parte hartu duten gazteen artean ez da azaldu euskararekiko jarrera negatiborik. Euskara nahiko urrun moduan egon daitezkeenek ere bere sentitzen dute euskara.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Han ez dute euskaraz hitz egingo, baina ez dut galdu nahi ere ez".* (Euskara nahiko urrun)
  - *"Ez litzaidake gustatuko euskara maila galtzea, egia esan".* (Euskara nahiko urrun)

  Orain dabiltzanak:

  - *"Nola ez duten erabiltzen, erosoago sentitzen dira baina ez nuke esango euskara gorrotatzen dutenik".* (Sentsibilizazio saioak Batxilergoa)

- **Euskararen erabilerarekiko jarreretan euskara erabiltzera behartuta sentitu izanak badu eragina, negatiboa sarritan.**
  Eskolan (bereziki Lehen Hezkuntzan) euskara erabiltzera behartzen dituzten sentsazioa dute, eta epe ertainera horrek erabileran eta jarreretan eragin negatiboa duela.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Behartu egin gaituztelako eta behartze horrek, erabilera oztopatzen du nire ustez".* (Sentsibilizazio saioak eta *Kuadrillategi*)

  - *"Nire ustez, ikastolan behartzen gintuzten, euskarako klasean batez ere".* (Sentsibilizazio saioak eta *Kuadrillategi*)

- **Irakaskuntzan ahozkotasunak ez du leku handirik eta erabilerari ere ez zaio garrantzia handirik ematen.**
  Klaseetan ahozkoak eta erabilerak leku gutxi duela aipatzen da. Metodologia hori bada ez zaie laguntzen euskaraz eroso aritzeko gaitasuna lantzen eta klaseak ez dira euskara erabiltzeko babesgune.

  Lehen ibilitakoak:

  - *"Baina hor zer egiten duzu... aditzak eman, literatura... horrek ez du laguntzen euskararen erabileran", "euskara erabiltzen ez duenak erraztasuna lortzeko".* (Euskara gertu)

  - *"Orduan, euskaraz egiten nuen eskolan ondo joateko. Baina, institutuari edo irakasleei ez zaie hainbeste inporta".* (Euskara nahiko urrun)

- **Ikasgelan euskararen erabilera handiagoa da, batez ere irakasleekin.**
  Hainbat nerabek irakasleekin soilik egiten dute euskaraz. Hori da euskararen babesgune bakarra.

  Orain dabiltzanak:

  - *"Gutxienez klasean euskaraz egiten genuen. 1. Ikastolan beti esaten digute euskaraz hitz egiten saiatzeko baina normalean irakasleei euskaraz hitz egiten diegu baina gure artean ez dugu asko egiten".* (Sentsibilizazio saioak Batxilergoa)

  - *"Etxean euskaraz egiten dut baina eskolan irakasleekin bakarrik. Beraz, etxean egingo ez banu gutxi erabiliko nuke".* (Sentsibilizazio saioak Batxilergoa)

- **Eroso aritzeko gaitasun falta da oztopoetako bat.**
  Euskaraz eroso aritzeak asko lagunduko luke hizkuntza-ohituretan, baina askok ez dute erraztasunik, aitzitik,, zailtasun edo muga nabarmenak dituzte.

Lehen ibilitakoak:

- *"Ez naiz eroso sentitzen, aspaldian oso gutxi erabili dudalako".* (Euskara nahiko urrun)

Orain dabiltzanak:

- *"Beharbada, batzuk lotsatu egiten dira ez dutelako beste batzuen maila berbera. Eta horrek bultatzen die gaztelaniaz hitz egitera".* (Sentsibilizazio saioak eta *Kuadrillategi*)

- *"Ba, nik baditut lagunak euskara urrun samar dutenak, euskaldunak ez direnak. Euskara badakite, baina oso zaila egiten zaie euskaraz hitz egitea eta ez dute asko hitz egiten".* (Sentsibilizazio saioak eta *Kuadrillategi*)

- *"Nik adibidez lagunen artean ikusten dut ez dakitela euskaraz oso ondo hitz egiten. Ikusten dut batzuetan lagunen azterketa bat eta ez dakite ondo idazten. Eta hitz egitea ere kosta egiten zaie, erderaz askoz hobeto hitz egiten dute".* (Sentsibilizazio saioak Batxilergoa)

- **Kirolak duen eragina aipatzen dute.**
  Kirolak duen eraginaz jabetzen dira. Kirol entrenatzaileen jokabideek nerabeen euskararekiko jarreretan duen eragina aipatzen dute.

Lehen ibilitakoak:

- *"Infantiletako entrenatzaileak dena erdaraz hitz egiten zuen. Gero kadeteetakoak dena euskaraz egiten zigun".* (Euskara nahiko urrun)
- *"Futbolean ere, asko erabiltzen dugu euskara eta asko harritu nau. Uste nuen futbolean ez zegoela euskararik Lasarten eta nire taldean euskara dexente egiten da".* (*Kuadrillategi-Faktoria*)

- **Euskara gehiago erabiltzeko, testuinguru egokiak behar dira.**
  Lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskaraz aritzeko testuinguruak lagundu egin behar du. Hizkuntza-araua gaztelaniaz egitea bada ez da erraza euskararen aldeko hautua egitea.

Orain dabiltzanak:

- *"Nik etxean erabiltzen dut batez ere, familiarekin eta. Seguru nagoelako egiten dut euskaraz".* (Sentsibilizazio saioak eta *Kuadrillategi*)

6

Ondorioak


EMAITZAK AZTERTU OSTEAN, IKERKETAREN ONDORIOAK AZALDUKO DITUGU. HORRETARAKO, ABIAPUNTUTZAT HARTU DITUGUN GALDERAK ERANTZUTEN SAIATUKO GARA.

- **_Ele-meleka_k, neurri batean bada ere, hizkuntza sozializazioan laguntzen du.**

Ele-meleka egitasmoak hainbat norabidetan laguntzen du nerabeen hizkuntza sozializazioan. Alde batetik, **kontzientzia** eta ezagutza **soziolinguistikoaz** jabetzeko aukera ematen die nerabeei. Hau da, Lasarte-Oriako euskaren egoera ezagutzeko, horretaz jabetzeko eta arduratzeko eremua da programa. Ikasgelan bertan garatzen diren saioetan luze eta zabal jorratzen baita. Esan nahi baita, nerabe zein gazteek askotariko esperientzia linguistikoak dituztela euren eguneroko bizitzan, bai ikastetxean bai handik kanpo. Beste aldetik, esperientzia eta elkarrekintza horietaz aritzeko, esplikatzeko eta hitza jartzeko balio du programak, hizkuntza-praktikak arakatzeko, inertzia linguistikoak ulertzeko eta diskurtsoak eraikitzeko. Norberaren praktika linguistikoak kokatzeko markoa eskaintzen diete nerabeei *Ele-meleka* programako saioek.

Programa ongi ordenatuta dago eta koherentea da. Hortaz, maila teorikoan zein jarrerazkoan eragiten du, emaitzetan aztertu dugun bezala.

- **Eragin nabarmenagoa du euskara gertu eta nahiko gertu dutenengan, euskara nahiko urrun dutenengan baino.**

Maila teorikoan eta jarrerazkoetan eraginik izan badu, baina maila praktikoan? **Hiztunen aktibazioan** duen eragina azpimarragarria da. Euskararen aldeko hiztun aktiboak bilakatzeko baliagarri da programa. Hau da, euskara gertu edo nahiko gertu duten horiengan eragiten du. Zein norabidetan, baina? Bada, hiztun aktiboak diogunean eragile izatearen rolaz ari gara. Eta horrek bi alde ditu: , hizkuntza berdintasunaren eta eskubideen inguruan diskurtsoak entzuteko aukera ez ezik horiek sortzekoa ere bai. Emaitzetan xehatu dugun moduan, zenbait gaztek egitasmoak eskaintzen dituen hainbat egituraren bitartez (*Faktoria*, *Kuadrillategi*, Gazte Batzordeak...) euskaraz aritzeko babes-guneak dituzte, eta agente edo **eragile** bihurtzen dira; ez euskara biziberritzearen elementu soilak. Horren azalpena izan liteke, euskararen aldeko gizarte mugimendutik euskararen aldeko ekimenen instituzionalizaziorantz jo dela azken urteotan, besteak beste, hainbat eremutan herri-mugimenduen kaltetan gertatu den desmobilizazioa Aldaketa horrek ekarri du, seguru asko, nerabeak ez sentitzea hizkuntzaren biziberritze prozesuan eragile, haien buruari egoera eraldatzeko agente izatearen funtzioa ematen ez diotelako seguruenera.

Gako hori estrategikoa iruditzen zaigu, eta *Ele-meleka*k erdiz erdi asmatu duelakoan gaude. Izan ere, emaitzetan agertu den moduan, **nerabeek protagonista eta autonomo sentitzen diren eremu horietan egiten zaie errazen euskararen aldeko dinamikak sortzea**. Gazte Batzordeak bezalako eremuetan modu autonomoan aritzeko eskaintzen zaizkien espazioetan nerabeak gustura aritzen dira, nahi dituzten dinamikak sor ditzaketelako euskaraz. *Kuadrillategi*n, beste hainbeste, baita *Faktoria*n ere: **nerabeen beharretara ongi egokitutako harreman-espazioak** dira, euskaraz eraikitzen direnak, non dinamizatzaileen esku-hartzearekin batera nerabeak partaide sentitzen baitira Ahozkotasuna (erabilera), eta parte hartzea dakar horrek (*bagara nor* izatearen bizipena). Hau da, **agentzia izateko gaitasuna onartzeaz gain, hori praktikara eramateko espazioak eta tenpusak nerabeei eskaintzeak emaitza positiboak dakartza euskararen aldera**.

Emaitzetan ikusi bezala, programaren hainbat espaziotan argi samar dago euskara dela hizkuntza praktikarako ardatza, eskolatik kanpo baldin badaude ere (*Kidetzeak*, Gazte Batzordeak...)

Horrek, beste elementu garrantzitsu bat elikatzen du: ahalduntzea. Hots, euskaraz hitz egiteko aukera gehiago izateaz ari gara, eta norberak eta taldean hartzen duen erabaki proaktiboaz. Izan ere, egitasmoak euskara gertu edo nahiko gertu duten horienganako babes-funtzioa du, babes-eremua sortzen du, maila teorikoan zein praktikoan. Kaleko hizkuntza-arauak gaztelera den Lasarte-Oria bezalako herrietan, **euskara gertu edo nahiko gertu duten nerabeen ahalduntzea elikatzea berebiziko garrantzia dauka**. Aktibo edo eragile gisa jarduten dutenak, aipatutako espazioetan (*Faktoria*, *Kuadrillategi*, Gazte Batzordeak...) gainontzekoak erakartzeko gai dira kalean gailentzen ez den hizkuntza jokaerara, hau da, euskaren aldeko praktika linguistikoetara.

Ahalduntzeak ekartzen duen autoestimuak badu jarraipena herrigintzan, eta hainbat dinamika sozialetan euskaraz aritzeko prestutasuna; hots, herrigintzara jauzi egiteko aukera ematen du. Horrek gailentzen den kapital sozialarekiko kontrapisua ekartzen du. Hau da, oro har, nerabeen artean euskaraz aritzea ez bada hautu estrategikoa, *Ele-meleka*ren bitartez gogoeta eta eragile izateko aukera bizi dezakete nerabeek, ahula dagoen dinamika soziala, neurri batean, euren inguru hurbilean hauspotzeko.

Babesgune horietan, hainbat dinamika sortzen dira, erabiltzeko **eremu naturalak baitira**, ikasgelatik at, eta euskara maiz erabiltzeak erabilera indartzen du. Horrek guztiak hiztun aktiboen sorkuntzan eragin positiboa izateaz gain e esperientzia sozialetan ere eragina du, adibidez herrigintzan.

- **Egokia da eta lorpen bat da eragin praktikoa batez ere euskara gertu eta nahiko gertu dutenengan izatea.**

*Ele-meleka*k euskara nahiko urrun dutenengan eragin txikia edo nahiko mugatua duela esan daiteke. Sentsibilizazio saioetan parte hartzen dute, batzuk Ahobizi dinamiketan ere bai, behar bada *Kuadrillategi*n ere bai... Baina eragin oso txikia du bi ezaugarri hauetako nerabeen artean:

- Euskararen aurkako jarrerak eduki ditzaketenengan. Institutuan sumatzen dira euskara erabili nahi ez duten ikasleak eta euskararekiko diskurtso negatiboak dituztenak. Sentsibilizazio saioetan soilik parte hartzen dute eta edukiek seguruenik ez dute eraginik hauengan.
- Herriko jarduera edo giroan parte hartzen ez dutenengan. Herriko dinamiketatik kanpo dabiltzan nerabeak ere badaude: ez dute kirol jardueretan parte hartzen, ez *Kuadrillategi*n, ez herriko bestelako ekimenetan. Horiengan ere eragina sentsibilizazio saioetara mugatzen da.

Beraz, *Ele-melek*aren eragin praktikoa nabarmena da euskara gertu eta nahiko gertu dutenengan. Baina eskura dauden baliabideak ikusirik eta lehentasunak ere jarri behar direnez, norabidea egokia da eta lorpen moduan ikusi behar da.

- **Estentsiboa eta intentsiboa, norberaren erritmoa errespetatzea.**

  *Ele-meleka*k, hortaz, nerabeen hizkuntza errealitatea aintzat hartzen du, eta bere baitan dituen tresna eta baliabideen bidez nerabeen beharretara egokitzeko gaitasun dauka. Intentsiboa/estentsiboa eta malgutasuna/zurruntasuna bezalako dialektikak kontuan izatea oso garrantzitsua da. Bi mugimendu horien txirikordak lor dezake hein batean nerabeen hizkuntza-ahalduntzea horrelako egitasmoen bitartez. Are gehiago, herriaren kaleko hizkuntza nagusi gaztelania denean.

- **DBH1: hizkuntzaren jantzia aldatzen hasten garenean, orduan, esku hartzea.**

  Bai, mudantzen fenomenoa indartsua da. Mudantzaren fenomenoaz jabetzeko, eta horren gainean aritzeko egitasmo egokia da. Eztabaida-taldeetan agertu den moduan, eta emaitzetan agertzen den eran, nerabeak eta irakasleak zein dinamizatzaileak ohartzen dira hizkuntza-mudantzen fenomenoaz. Adinean gora egin ahala hizkuntza-ohituren aldaketak gertatzen baitira eskolaz kanpoko beste eremu batzuk norberaren bizitzan eragiten hasten direnean: kirola, talde naturalen nahasketa... Hortaz, aurreko ondorioan agertu dugun moduan DBH1ean fokoa jartzea eta babes gune izan daitekeen programa martxan jartzea guztiz egokia da hizkuntza-mudantzen fenomenoaren ondoriozko eragin negatiboak murrizte aldera. Nolanahi ere, fenomenoa gero eta adin tarte txikiagoetan ematen hasia da Lasarten, LH6ean eta tarteka 5ean ere antzeman baitute jada.

- **DBH3k eta DBH4k badituzte euren ezaugarri propioak.**

  Emaitzek erakusten dute DBH3n zein DBH4an modu aproposean egokitu dela *Ele-meleka* programa. Lau arrazoi azpimarratu nahi ditugu:

  - **Kultur kontsumoarekin lotutako eskaintzak** nerabeak erakartzeko indarra du. Musika, sare sozialak... edukia duten gaiak gertukoak dira nerabeentzat, eta horretara lerratzeak ekarri du ikasleek ongi hartzea *Ele-meleka*ren programak.

  - Egunerokotasunarekin, gaur egun nerabeekin kontsumitzen duten horrekin, lotzea: **gaien aniztasuna** modu positiboan baloratu dute nerabeek. Haien kontsumo moduetatik gertu dago dinamizatzaileek egiten duten eskaintza. Nerabeen gustu, nahi eta premietara egokitzea funtsezkoa dela deritzogu, eta, alde horretatik, ahalegina eskatu die horrek guztiak dinamizatzaileei saioen prestaketarako. Seguru asko, **sormena eta ideia berritzaileak garatzeko beharra izango dute dinamizatzaileek**.

  - **Gogoetarako espazioak** dira. Baliagarria da eztabaidatzeko, diskurtsoak partekatzeko, eraikitzeko, eta norbere ibilbideaz hausnartzeko . *Ele-meleka*k, ikastetxearen programazioaren barruan dagoenez, ekintza zehatz eta puntualaren ikuspegia gainditzen du, eta horrek aukera ematen du nerabeengan hizkuntza sozializazioaz aritzeko. Gogoeta egiteko, hausnartzeko. Eztabaida pizteko. Hizkuntza-ohituraz

aritzeko, hitz egiteko. Horretarako ere metodologia berritzaileek eta nerabeen gertuko gaiek berebiziko garrantzia dute.

- Horren haritik, begien bistakoa da **programa etengabe egokitzeko beharraz**. Gaien aniztasunari eutsi behar zaio. Hori oso aintzat hartzeko kontua da. Dinamika sozialen aldaketa azkarrek nerabeen erreferenteak eta gaiak zein diren adi egotea eskatzen dute. Dinamizatzaileen aditasuna eskatzen du horrek. Azken horiek funtsezkoa izango dira urtero programaren edukiak, dinamikak, erreferenteak.... berritzeko eta nerabeek gertukoak eta gustukoak izateko. Izan ere, inertzia horiek askotarikoak dira, besteak beste: globalizazioaren indar homogeneizatzailea, komunikazio modu berriak, migrazioa, nerabeak euskara "hor" dagoen zerbait moduan ikustea.

Etorkizunari begira...

Bi gogoeta:

A) Egokitzea nerabeen mundura, lehen aipatu ditugun ideien ildotik.

B) Aurrera begira hainbat ekintza-ildo azpimarratuko genituzke:

Euskara gertu duten nerabeei protagonismoa ematea, beraien ahalduntze prozesua bizkortzeko, eta euskara urrun duten batzuekiko erakarpen indarra handitzeko. Gazte eragile, gazte batzorde, nerabeen batzordea... edo nahi den egitura dinamiko, malgua eta sortzaileak beharrezkoak dira.

Hizkuntza-sozializazioak eragiteaz eta gogoeta egiteaz jardun behar du. Lagundu egin behar die nerabeei hizkuntza diskurtsoak eraikitzen, euskara 'hor dagoen zerbait' (Artetxe, 2023) moduan ikusi ez dezaten, eta jardueretan protagonista sentitzen. Luze eta zabal jo dezake protagonista edo parte-hartzaile sentitzearen gaineko ideiak aletzeak. Honatx ildo orokor batzuk:

- Espazioak eta denborak utzi, haiek antola ditzaten.
- Euskararen babesgune edota arnasgune edo indargune diren espazioak, nerabeek berek kudeatuko dituztenak.
- Euren jarduerak egiteko espazio propioak dituztela sentitzea.
- Nerabeek ardura eta erabakimena garatzeko aukera emango dieten espazioak.
- Parte sentituko diren espazioak, protagonista.
- Helduen begiradapetik kanpo dauden espazioak; soilik dinamizatzaileak egongo dira.

Labur esanda: *gazte eragileen batzordea* bezalako mekanismo sozialak katalizatzaile moduan joka dezakete, beti ere egitasmo zabal, ordenatu eta sekuentziatu baten parte badira.

C) Hizkuntza-sozializazioan laguntzearen lanketari Lehen Hezkuntzan heltzea:

Ikerketan ikusi den moduan Bigarren Hezkuntzara iristerako hainbat dinamika eta ohitura finkatuta daude:

- Nerabeen arteko hizkuntza-araua gaztelaniaz egitea da (badira euskaraz egiten duten nerabe taldeak, baina besteekin nahastean gaztelaniara jotzen dute automatikoki).

- Institutuan Lehen Hezkuntzan bi ikastetxe ezberdinetan ibilitako ikasleak nahastu arren, ikasle horien arteko harremana (eta hizkuntza-harremana) aurretik sortua da: kirolean bereziki.

- Euskaratik gaztelaniarako hizkuntza-mudantza Bigarren Hezkuntzara iritsi aurretik ematen da askoren kasuan.

Ondorioz, 8 edo 9 urterekin hizkuntza-sozializazioaren ikuspegiaren lanketari heltzea egokia izan daiteke, lanketa horren ezaugarriak haurren ezaugarrietara egokituz.

7

Erreferentzia bibliografikoak

- Acocella, Ivana. 2012. *The focus groups in social research: advantages and disadvantages*. Quality & Quantity: Italia. 46(4): 1125-1136.

- Artetxe, Miren. 2023. E*uskara eta gazteak Lasarte-Orian IV. 30 urte eta gero, zer?*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.

- Batzuen artean. 2009. *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaitzen txostena*. Soziolinguistika Klusterra, Urtxintxa Eskola eta Topagunea.

- Cabrera-Rodríguez, Flor. 2011. "Técnicas e instrumentos de evaluación: una propuesta de clasificación". *REIRE, Revista d'Innovació i Recerca en Educació*, Vol. 4 (2): 112- 124.

- Blaxter, Loraine., Hughes, Christina., Tight, Malcolm. 2010. *How to research*. McGraw Hill-Education: New York.

- Ebete, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara-zerbitzua, Ttakun Kultur Elkartea, Oriarte BHI, eta Huegun, Asier. 2022. *Ele-meleka. Bigarren Hezkuntzako nerabeen hizkuntza sozializazioan laguntzeko proiektua*. Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala.

- Kasares, Paula. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako familia euskaldunetan* (Doktore tesia). Euskaltzaindia.

- Hernandez, Jone Miren. 2020. *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*. Soziolinguistika Klusterra.

- Pujolar, Joan, eta Gonzàlez, Isaac. 2013. "Linguistic 'mudes' and the de-ethnicization of language choice in Catalonia". *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2): 138-152.

Ttakun
Kultur Elkartea

ORIARTE
Institutua

ebete
Euskararen erabilera sustatzeko
baliabideak eta tresnak

eman ta zabal zazu
Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO